Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 15a, astelehena — 136 — Lunes, a 15 de julio de 2024



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTATU NAGUSIA

**Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia**

*Dirulaguntzak ematea Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura. 2024. urteko deialdia. 2. lerroa: Gipuzkoako udalei zuzendutako dirulaguntzak aniztasuneko bizikidetzaren gaietan proiektuak gauzatzeko.*

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2024ko uztailaren 4ko datarekin:

Diputatuen Kontseiluak, 2023ko otsailaren 7an egindako bileran, onartu zituen Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.

2024ko deialdia aurtengo apirilaren 9ko Diputatuen Kontseiluko Erabaki bitartez onartu zen. Dirulaguntzen 2. lerroak Gipuzkoako udalei zuzendutako dirulaguntzak jasotzen ditu, aniztasuneko bizikidetzaren gaietan proiektuak gauzatzeko.

Oinarri orokorretan ezartzen denez, laguntza horiek elkarrekiko norgehiagoka prozeduraren bidez eman dira. Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak eskaerak aztertu eta baloratu ditu, kontuan harturik zer irizpide ezarri ziren oinarrietan dirulaguntzak emateko, eta ebaluazio batzordeak prozedura ebazteko proposamena egin du.

10.1. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiak emango du deialdiaren ebazpena, foru dekretu baten bidez. Bestalde, 10.2 oinarriak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1, b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da dirulaguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, ebaluazio batzordeak egindako ebazpen proposamenari jarraituz, diputatu nagusiak

EBATZI DU

*Lehenengo.* Ematea foru dekretu honen eranskinean zehazten diren Gipuzkoako udalei zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko 2024ko deialdiaren barruan (2. lerroa). Horretarako,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DIPUTADA GENERAL

**Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática**

*Concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática. Convocatoria año 2024. Línea 2: Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.*

La diputada general, con fecha de 4 de julio de 2024, ha dictado el siguiente decreto foral:

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 7 de febrero de 2023, aprobó las bases reguladoras para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática.

La convocatoria de 2024 para la concesión de estas subvenciones fue aprobada mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 9 de abril del presente año. La línea 2.ª recoge las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

Como se establece en las bases generales, el procedimiento de concesión se ha llevado a cabo mediante concurrencia competitiva. La Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática ha analizado y valorado las solicitudes presentadas, teniendo en cuenta los criterios de concesión de subvenciones establecidos en las bases, y la comisión evaluadora ha formulado la propuesta de resolución.

Según lo dispuesto en la base general 10.1, corresponde a la diputada general resolver la concesión de la convocatoria mediante decreto foral. Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 10.2 y en el artículo 45.1, b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, de acuerdo con la propuesta de la comisión evaluadora, la diputada general

RESUELVE

*Primero.* Conceder las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad que se detallan en el anexo del presente decreto foral, dentro de la convocatoria de 2024 para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura

EK\CV GAO-I-2024-05130

150.000,00 euroko gastua xedatuko da zerrendan azaltzen diren erakunde onuradunen alde, zehazten diren zenbateko partzia lengatik eta kontu sailen kargura.

*Bigarren.* Jarraian aipatzen den eskaera ezestea, 60 puntuko balioespen gutxienekoa ez lortzeagatik (4.2. oinarri espezifikoa):

— *Kodea:* 2024-AN01-018-01.
*Entitate eskatzailea:* Irun.
*Programa:* Sukaldanitzak/Ehun Zapore.
*Puntuak:* 35.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete foru dekretu honen aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2024ko uztailaren 5a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria. (5130)

Democrática (línea 2), disponiendo a favor de las entidades beneficiarias relacionadas un gasto de 150.000,00 euros, por los importes parciales y con cargo a las partidas presupuestarias que se señalan.

*Segundo.* Denegar la siguiente solicitud, por no obtener la valoración mínima de 60 puntos (base específica 4.2):

— *Código:* 018-01-018-01.
*Entidad solicitante:* Irun.
*Programa:* Sukaldanitzak/Ehun Zapore.
*Puntos:* 35.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 5 de julio de 2024.—El secretario del Área de la Diputada General, Juan José de Pedro Alonso. (5130)

EK\CV GAO-I-2024-05130

Eranskina/Anexo

| *Espedientea* *Expediente* | *Udal onuraduna* *Ayuntamiento beneficiario* | *Proiektua* *Proyecto* | *Puntuak* *Puntos* | *Dirulaguntza* *Subvención* | *Kontu sailak* *Partidas* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2024-AN01-001-01 | Zarauz | Zarautzera atzerritik etorritako 6-18 urte bitarteko bizilagun berrien Ikerketa-diagnostikoa | 61 | 8.845,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.306,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.539,00 € |
| 2024-AN01-002-01 | Aretxabaleta | Euskara eta aniztasunetik elkarbizitza ereiten | 65 | 9.403,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.642,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.761,00 € |
| 2024-AN01-003-01 | Oñati | Jatorri aniztasunaren elkar ezagutza eta aitortza | 64 | 9.263,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.558,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.705,00 € |
| 2024-AN01-004-01 | Urretxu | Urretxu denontzat | 63 | 9.124,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.474,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.650,00 € |
| 2024-AN01-005-01 | Azpeitia | Harrera integrala diseinatu eta martxan jartzeko proiektua | 60 | 8.703,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.222,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.481,00 € |
| 2024-AN01-006-01 | Ikaztegieta | Kulturarteko proiektua Ikaztegietan, feminismotik eta euskaltzaletasunetik | 65 | 4.727,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 2.836,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 1.891,00 € |
| 2024-AN01-007-01 | Eskoriatza | Elkarrekin harremanean, euskara ardatz | 64 | 9.263,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.558,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.705,00 € |
| 2024-AN01-008-01 | Errenteria | Errenteriako Aniztasuna eta Bizikidetza sustatzeko proiektua | 64 | 9.263,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.558,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.705,00 € |
| 2024-AN01-009-01 | Ordizia udala | Ordizia Kolore “Ordiziako Udal Harrera Sarea” eta “Ongi etorri euskarari!” | 68 | 9.823,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.894,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.929,00 € |
| 2024-AN01-011-01 | Mutriku udala | Kulturaniztasunetik Kulturartekotasunera | 63 | 9.124,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.474,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.650,00 € |
| 2024-AN01-012-01 | Eibar udala | Eibar: Hiri anitza eraikitzen / Eibar: Construyendo una ciudad diversa | 66 | 9.543,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.726,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.817,00 € |
| 2024-AN01-013-01 | Idiazabal | Idiazabal Anitza | 60 | 8.703,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.222,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.481,00 € |
| 2024-AN01-014-01 | Pasaia | Pasaiako beste jatorri batzuetako emakumeen taldea | 62 | 8.983,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.390,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.593,00 € |
| 2024-AN01-015-01 | Legorreta | Legorretako Udalaren harrera instituzionala diseinatu eta martxan jartzea | 60 | 8.703,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.222,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.481,00 € |
| 2024-AN01-016-01 | Asteasu | Mundu bat Asteasun | 63 | 9.124,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.474,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.650,00 € |
| 2024-AN01-017-01 | Zaldibia | Euskara eta kulturartekotasuna Zaldibiako hezkuntza-komunitatean: elkargunean sortzen | 60 | 8.703,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.222,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.481,00 € |
| 2024-AN01-019-01 | Donostia | Martuteneko Harrera Komunitarioa abian jartzeko prozesua | 60 | 8.703,00 € | 1.0140.400.461.01.01.2024: 5.222,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2025: 3.481,00 € |